

Beste sari bat inguruarekiko konpromisoagatik

EROSKI-K URREZKO ANUARIA SARIA JASO DU TOKIKO PRODUKTUAK OINARRI DITUEN PUBLIZITATE-KANPAINA BATEGATIK

- Anuaria sariena diseinu grafikoaren sektoreko ekitaldirik entzutetsuena da, eta bertan, EROSKIri sari gorena eman diote publizitate komertzialaren kategorian.
- EROSKIren kanpainan, elikagai freskoak, inguruarekiko konpromisoa eta herriko festak jorratzen dira.

Bartzelona, 2017ko azaroaren 10a.- Elikagai freskoak, inguruarekiko konpromisoa eta herriko festak erabiltzen dituen EROSKIren kanpaina batek [2017ko urrezko Anuaria saria](#) jaso du bertan gauean Bartzelonako Firan egindako ekitaldian. Beste sari batzuk bezala, EROSKI Anuaria saria jaso du inguruarekin duen konpromisoagatik, hori baita Zurekin eredu komertzial berriaren oinarrietako bat.

Kanpaina komertzialaren esloganean tokiko produktuak aipatzen dira (*Produktu onak hemengoak badira, are hobekak!*) eta metafora bisualekin jolasten da. Zehazki, tokiko elikagai freskoak herriko kulturaren osagai moduan erakusten dira, eta ikusleek, konplizitatez, mezua osatzen dute. Esan bezala, tokiko ekoizpeneko elikagaiak dira: porruak, letxugak, piperminak, perretxikoak... Eta inguruko kultur oparotasunaren osagai moduan agertzen dira.

Kanpainak, beraz, publizitate komertzialeko kategoriako saririk garrantzitsuenak jaso du, eta brandingeko [Sirope](#) sorkuntza-agentziarekin lankidetzan diseinatu da.

Urtean zehar, EROSKI zenbait kanpaina egiten ditu elikadurari balioa emateko. Helburu horrekin, inguruan ekoizten diren elikagaien berri eman nahi izaten da, eta modu berri batean aurkezten dira, eguneroko erosketarako beste aukera bat direla ikusteko. Izan ere, produktu horiek lagungarri dira tokiko ekonomiarako eta iraunkortasunerako, kontsumitzen diren lekutik gertuago ekoizten direlako.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



EROSKIri buruz

EROSKIren hornitzaileen % 50 baino gehiago ekoizle txikiak dira. Hori da, hain zuzen ere, EROSKI bereizten duten ezaugarrietako bat. Horren jatorria askotariko ekoizpen-ehuna oinarri duen nekazaritzako elikagaien sektorearekiko konpromisoa da, sektore hori oso garrantzitsua baita ekonomiarako, kulturarako eta ingurumenaren iraunkortasunerako.

Anuaría sariei buruz

[Anuaría sariak](#) Espainiako diseinu grafikoko sari ospetsuenak dira, eta ia 25 urteko ibilbidea dute. Epaimahaiko kide guztiak komunikazio grafikoko profesionalen elkarteen ordezkariak dira.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)